

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Zerbitzu publikoak eskaini eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartzea

Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2023ko irailaren 28an hartutako hasierako erabakia, zerbitzu publikoak eman eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituena, jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren (iragarkia ALHAOn argitaratu zen, 119. zenbakian, 2023ko urriaren 9an), eta ordenantzari inolako erreklamaziorik aurkeztu ez zaionez, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, tarifen eranskina argitaratzen da, indarrean sar dadin.

I. eranskina, 1. maila "Zaborra biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa", 6. araua "Tarifen taula"

Konpostatzen duten etxebizitzak eta abeltzaintzako ustiategiak	54,17 €
Konpostatzen ez duten etxebizitzak eta abeltzaintzako ustiategiak	65 €
Konpostatzen duten tabernak, ostalaritza eta jatetxeak	86,66 €
Konpostatzen ez duten tabernak, ostalaritza eta jatetxeak	97,50 €

Zalduondo, 2024ko urtarrilaren 2a

Alkatea

LURDES LEKUONA LABURU